



LA HERRERA
HAUSNARTZEKO ETA DEFINITZEKO
PARTE HARTZEKO PROZESUA
LABURPEN-DOKUMENTUA

Pasaian, 2009ko uztailean

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. LA HERRERAREN ETORKIZUNAREN GAINEKO POSIZIONAMENDUA ...	4
3. EGINDAKO PROPOSAMENEN LABURPENA	6
3.1. Espazio libreak.....	6
3.2. Kultura-ekipamenduak	7
3.3. Turismoarekin zerikusia daukaten jarduera ekonomikoak	7
3.4. Hezkuntza-ekipamenduak	8
3.5. Gizarte-ekipamenduak	9
3.6. Kirol-ekipamenduak	9
3.7. Hezkuntzarekin zerikusia daukaten jarduera ekonomikoak	9
3.8. "Bata zuriko" jarduera ekonomikoak	10

1. SARRERA

La Herrera Pasaiako lurraldeko (eta bereziki Trintxerpeko eta inguruko) desoreka sozio urbanistikoak gainditzeko aukerako espazio bezala azaltzen zaigu.

Pasaiako Hirigintza Arauetan lurralde horretaz hitz egiten denean, aipatzen da eremuaren antolaketak inguruak dituen gabeziak eta errealitateari egin behar diola aurre. Hots, lurralde horretarako antolatzen denak aintzat hartu behar dituela joan den mendean sortutako garapen itzelak sortutako desorekak; izan ere, XX. mendean eraiki zen inguru guztia, izugarritzko dentsitatearekin, aisialdirako batere espazio librerik gabe eta zerbitzuak emateko oso ekipamendu gutxirekin.

Horregatik, orain lurralde horrekin zer egin behar den definitzeko aukerak zabaltzen zaizkigun honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da bere etorkizunari buruzko erabakiak hemen bizi eta lan egiten dugunon artean hartzea; azken finean, Pasaiak zer izan behar duen Pasaiaren bertan erabakitzea.

Horretarako, Alkatezaren prozesu bat jarri zuen abian La Herreraz hausnartzeko eta definitzeko. Prozesu horretan ez zegoen aurretiko posizionamendurik eta ikasteko ikuspegiarekin zegoen planteatuta, eta ahalegin hori eskertu eta aitortu nahi dugu pasaitarrok, herritarrok gure etorkizunean eragiteko eta parte hartzeko apustua delako. Horri dagokionez, Udala gonbidatu eta animatu nahi dugu herritarroi hitza ematen jarrai dezan gure etorkizuneko funtsezko erabakietan.

Inguruko errealitate fisiko, sozial eta ekonomikotik abiatuta, parte-hartzaileok prozesuan zehar hausnartu egin dugu eta ondorio batzuetara iritsi gara. Horrela, alde batetik, La Herreraren etorkizunarena aurrean jokatzeke irizpide orokorrak jaso ditugu, hau da, La Herrerari buruz hartu beharreko erabakien gainean herritarren posizionamendua zehaztu dugu; bestetik, inguru horretako beharrak zein diren eta bertan ezarri nahi diren erabilerak identifikatu ditugu.

Prozesuan zehaztutako irizpideak eta egindako proposamenak funtsezkoak dira geroko Pasaia garatzeko; herri-eremu hau izango da etorkizunean Pasaia biziberritzeko erdigunea, alderdi guztietatik begiratuta: gizartea, hirigintza, ekonomia... Beraz, oso erabaki garrantzitsua da, guztion artean aztertu eta eztabaidatu beharrekoa.

Parte hartu dugunok erabaki dugu behin betiko onarpena eman bitarteko prozedura guztiei segimendua egitea, eta planeamendu-tresna bakoitzean ezarritako parte hartzeko une bakoitzean aktiboki parte hartzea, gure ondorioak kontuan har daitezzen bermatzeko.

Dokumentu honetan, parte hartu dugunok La Herreraren etorkizunaren gainean zer posizionamendu daukagun jaso dugu, eta eremu horretarako egiten ditugun proposamenak laburbildu ditugu.

2. LA HERRERAREN ETORKIZUNAREN GAINEKO POSIZIONAMENDUA

La Herreraren etorkizunaren ganean hausnartzeko Pasaian gauzatu den herritarren parte hartzeko prozesuaren ondorioz, **parte-hartzaileok eremu horretarako irizpide batzuk definitu eta adostu ditugu.**

La Herrera ingurua Gipuzkoako hondatuenetako bat da. Baina, aldi berean, leku pribilegiatuenetako bat ere bada, natur inguru berezian dagoelako, komunikabide nagusien ondoan, orografia lauaren ganean, eta Gipuzkoako inguru jendeztatuenaren eta inguru osoaren gabezia nagusiei aurre eginda biziberritzeko eta konpontzeko potentzial handia dauka.

Horrela, kontuan izanik etorkizun hurbilean La Herrera biziberritzeko prozesua abian jar daitekeela, prozesuan parte hartu dugunok ondorengo irizpideak adostu ditugu:

1. La Herreraren **etorkizunaren gaineko erabakia pasaitarron gain egon behar du.**
- 2.-La Herreraren biziberritzearen gaineko eztabaidak **ez du eduki behar aurrebaldintzarik, ez denborazkorik, ezta espaziozkorik ere.** Ez dauka zentzurik La Herrera Iparra eta La Herrera Hegoa bereizteak, eta ez gaude ados horrekin; eskatzen dugu horrela ez zatitzeko, batez ere horrela jokatuta bi gune horien eta inguruko biztanle-guneen arteko zeharkakotasun-zailtasunak eta elkar lotzeko oztopoak iraunarazten direlako.
- 3.-Egingo den jardueraren proposamenaren oinarria eta abiapuntua, batez ere, **Pasaiaren eta inguruko biztanle-guneen premien azterketa sakona eta zehatza** izango da, eta azken hamarkadetan pilatzen joan diren **gabezia handiak arintzera** eta orekatzera bideratuko da. Nolanahi ere, **La Herrera ezin da izan zernahitarako konponbidea; premiak mailakatu eta lehentasunak ezarri behar dira; eta beharrezkoa bada, alternatibak diseinatu** Pasaiako beste leku batzuetan.
4. **Espazio libreen eta ekipamenduen premia izugarria da, larria, eta hori horrela izanik ez dugu nahi La Herreran etxebizitza berriak eraikitzerik.**
- 5.-Prozesuan parte hartu dugunok **lurra pribatizatzearen eta lurrarekin espekulatzearen aurka gaude erabat.** Herri-jabegoko lurra dira, publikoak, eta horrela izaten jarraitu behar dute. **La Herreraren biziberritzeak lagundu egin behar du inguruko biztanleria-dentsitatea eta gabezia batzuk** (aisialdirakoak, kulturakoak eta kiroletakoak) **orekatzen eta inguruaren biziberritze ekonomikoa indartzen.**
- 6.-Parte-hartzaileon ustez, horrexek izan behar du, hain zuzen ere, La Herreraren bertute handiena: inguru horretako espazio libreen eta aisialdirako guneen gabezia betetzea. Arestian adierazi dugunez, La Herrera Gipuzkoako inguru jendeztatuenetako baten erdigunean dago; horregatik, biziberritzeko orduan, errealitate hori orekatzera bideratu beharko da; hau da, bertan kokatu beharko dute espazio berdeek, aisialdikoek, kulturakoek eta kiroletakoek. Horregatik guztiagatik, **parte-hartzaileok eskatzen dugu Urban Planaren espiritua berreskuratzea (Etor eta Master Plan)**, bere osotasunean eta ez komeni diren alderdietan bakarrik; izan ere, bertan behar bezala eta egoki jasota daude La Herrera eraldatzeko eta biziberritzeko irizpide nagusiak.

LA HERRERA

INFORMAZIO-, HAUSNARKETA- ETA DEFINIZIO-TOPAGUNEA



7.- Halaber, **La Herrera biziberritzeak lagundu egin behar du Pasaiako barrutien eta biztanleguneen arteko komunikazio-arazoak eraginkorki konpontzen**, baita eskualde osoarenak ere. Ingurua behar bezala antolatzeko eskatzen dugu: oinezkoentzako lekuak, bide-komunikazioa, bidegorri-sarea eta itsas loturak optimizatu eta antolatu. Halaber, lurpeko aparkalekuak eskatzen ditugu.

8.-Bestalde, **La Herrera biziberritzean, itsasoari eta Pasaiaren historiari begiratu behar zaio** (kirol-portua, itsas museoa, ibilbide-sarea, turismoarekin zerikusia daukaten jarduerak...).

9.-Jarduera ekonomikoari dagokionez, proposatzen dugu **jarduera ekonomiko garbia, batik bat turismoarekin zerikusia daukana**.

10.-Azkenik, eskatzen dugu **Pasaiako Udaleko ordezkari politikoek planteamendu hauek aintzat hartzea eta kontuan izatea**. Horri dagokionez, **eskatzen dugu ez hartzeko inolako erabakirik Udalbatzarrean aurretik pasaitarren erabakia ezagutu gabe**. Prozesuan parte hartu dugunok **konpromisoa hartzen dugu lanean jarraitzeko** eta pasaitarrak inplikatzeko; izan ere, **La Herrerak pasaitarren etorkizunean eta bizi-kalitatean eragingo du**.

3. PROPOSAMENEN LABURPENA

Pasaia eta ingurua da Gipuzkoako inguru jendeztatuenetako bat. Pasaian 300 pertsona bizi dira hektareako, eta ez dauka inolako berdegunerik, ez dauka herri-hornidurarik, apenas daukan etorkizunean garapena bermatuko duen lurrik eta prekarietatea eta gainbehera gehiegi luzatu dira denboran.

2009ko ekainaren 13, 20 eta 27an, 80 pertsonak baino gehiagok hartu genuen parte Udalak bultzatutako parte hartzeko prozesuan, informazioa partekatzeko, egoeraren diagnostikoa egiteko eta La Herrera biziberritzeko balioko duten irizpide batzuk adosteko.

La Herreraren espazioari eman behar zaion erabilerari dagokionez, parte hartu dugun guzti-guztiok ados gaude **irizpide nagusian**:

Beste ezer baino lehen, La Herrera biziberritzeak aisialdirako espazioa eman behar dio bere inguruari, berdegunez inguratuta, eta ekipamendu batzuk sortu aisialdia, kultura eta ekonomia indartzeko. Gainera, Pasaia barrutien arteko komunikazioa erraztu behar du, baita pasaitarren eta inguruko lekuen arteko mugikortasuna ere.

Ondoren, adostutako proposamenak laburbilduko ditugu. Ordenak ere bakoitzari emandako lehenatasuna adierazten du:

3.1. Espazio libreak

Parte hartu dugunon iritziz, La Herrera biziberritzeak konpondu egin behar du inguruan hain nabarmena den espazio libreen eta aisialdiko gabezia. Errealitatea da etxebizitza-dentsitatea oso altua dela, baita biztanle-dentsitatea ere, eta ez dagoela aisialdirako batere lekurik; horregatik, biziberritzea gabezia horiek betetzera bideratu behar da. Horrela, Urban Planaren espiritua berreskuratzeko eskatzen dugu (Etor, Master Plan), bere osotasunean, uste baitugu oinarrian ondo baino hobeto jasotzen dituela La Herrera eraldatzeko eta berreskuratzeko irizpideak.

La Herrerak izan behar du elkargunea eta ibilbideak gurutzatzeko tokia; pasaitar guztiontzat eta inguruan bizi diren gainerakoentzat esku-eskura dagoen lekua; inguruko guztiak bat egiteko lekua, erreferentziala.

La Herreran berdeguneak egon behar dute, paseatzeko leku lasaiak, eta horietan oinezkoek izan behar dute lehenatasuna; leku itzaltsuak egongo dira, kirola egiteko leku bereziekin eta parkeekin, eta horiek diseinatzean bereziki kontuan izango dira hirugarren adinekoen eta haurren behar bereziak.

Laburbilduz, gure ustez **La Herrerak izan behar du batez ere espazio librea**, lehendik dagoen desoreka berdintzeko. Beharrak ondo identifikatuta daude eta horiei erantzun beharko diete espazio libre hauen kokalekuak, banaketak, irisgarritasunak, diseinuak eta tamainak.

3.2. Kultura-ekipamenduak

Pasaia kultura-jarduera handiko udalerrria da. Parte hartzeko prozesu guztian zehar garbi geratu da ados geundela horretan, eta beharrezkoa zela gune bat kultur jarduerak bateratzeko eta garatzeko.

Horrela, planteatzen dugu **kultura eta aisialdirako gune baten beharra**, ohiko kultur zerbitzuekin: liburutegia, musika-eskola, entseatzeko lokalak, auditoriuma, ludoteka..., baina ez dadila sortu eraikin eta zerbitzu huts batzuk bezala, baizik eta **gizarte-elkarrekintzarako eta inguru guztiaren kultur eta gizarte-biziberritzerako gune gisa**.

Alde horretatik, ikusten dugu beharrezkoa dela Udalerrian dauden zerbitzu eta eraikinak aztertzea, gaur egun zertarako erabiltzen diren eta etorkizunean zertarako erabil daitezkeen, baliabideak behar bezala aprobetxatu ahal izateko.

3.3. Turismoarekin zerikusia daukaten jarduera ekonomikoak

Pasaia gizarte-errealitate konplikatuko hiria da: oinarrizko errenta jasotzen duten bizilagun asko bizi dira, errenta-maila txikia daukaten asko daude, langabezia-maila handia da... Antzeko udalerriekin alderatuta, Pasaia Udalaren aurrekontua txikiagoa da. Herrian enpresak sortuz gero, aberastasuna sortuko litzateke eta onuradun nagusia herria izango litzateke. Pasaia inguru oso hondatuta dagoenez, **bultzatu nahi dugun ekonomia-birmoldaketa, batez ere, kutsadurarik eragiten ez duten jarduerena izango da**, ingurumena bere onera ekartzen laguntzeko.

Pasaia itsasoari lotutako herria da eta hori da bere ezaugarri nagusietako bat. Pasaia biziberritzeko egindako proposamen guztiek ezaugarri bera daukate: itsasoa. Testuinguru honetan sartuko lirateke prozesuan azaldu diren jarduera ekonomikoak. Jardueretan, batez ere, turismoarekin zerikusia daukatenei eman zaie lehentasuna, arrantza ahaztu gabe.

Proposatzen dugun jarduera turistikoak bateratu egiten ditu aisialdia eta Pasaiaren historia eta natur ondarea. Gainera, La Herrerako eremuak aukera ematen du itsas museo erakargarria sortzeko, batik bat Badiaren inguruan itsas gaietan kultur gune erreferente bat nahi dutenentzat. Berriz ere, gizarte elementu bizi eta elkarreragilea artikulatu nahi dugu, herritik bertatik gidatuko dena, Pasaiari dinamismoa emango diona eta mundura begira artikulatzeko elementu zabala izango dena.

Planteatzen dugun turismo tematikoak (baita egingo den beste edozein ekonomia-jarduerak ere) bisitariak ekarriko ditu eta horiei ostatu eman beharko zaienez, proiektuan aurreikusi egin beharko da ostatu ematea.

Gure ustez, hauek izango dira jarduera ekonomikoaren ardatz nagusiak:

- **Turismoa:** Pasaiaren natura- eta historia-potentzialaz baliatuta; historia eta ingurunea izan daitezke ekonomia sustatuko duten motorrak.
- **Museoa:** zuzenean Pasaiarekin eta itsasoarekin zerikusia daukana.
- **Aisialdia:** kanpotarrak erakarriko dituzten jarduerak bultzatu, batez ere urarekin zerikusia daukatenak (talasoterapia, aquaparka, kirol-portua ...).
- **Ostatua:** turismoak eta industriak sortuko dituzten beharrei erantzuteko hotel-ekipamenduak sortu.

3.4. Hezkuntza-ekipamenduak

10.000 biztanletik gorako udalerrietatik, Pasaia da DBHko eta batxillergoko ikastetxe publikorik ez daukan bakarra. Arazoetako bat da, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez duela uzten ikastetxe berean egoten haur-hezkuntzako eta lehen-bigarren hezkuntzako zentroak, eta azken horientzat aparteko kokalekua eskatzen du. La Herrera horiek kokatzeko leku egokia izan daiteke, baina beste alternatiba batzuk ere azter daitezke, besteak beste, gaur egun gutxi erabiltzen diren beste ekipamendu batzuk birmoldatzea.

Hezkuntza-ekipamenduei dagokienez, Pasaiak ez dauka eskola espezializaturik. Pentsatzen dugu jar daitezkeela abian trebakuntza-zentro bereziak, inguruko udalerrietan ematen ez diren gaiekin, edo Pasaian egiten diren jarduera ekonomikoekin zerikusia daukaten trebakuntza-zentroak.

- **Hezkuntza:** Pasaiak DBH/Batxillergoko ikastetxe publikoa behar du hezkuntza-zikloa sare publikoan osorik osatzeko.
- **Ikastetxe espezializatuak:** irudia eta soinua, diseinua, arte grafikoak..., eta egingo diren jarduera ekonomikoekin erlazionatutako trebakuntza. Trebakuntza berezia emango duten ikastetxeak izango dira, Pasaian baino emango ez dena. Diseinu-eskolak (esate baterako, Paco Rabanne Gunea) ez dauka zertan izan arroparekin zerikusia daukana (adibidez, izan daiteke beira, zeramika, egurra, bitxigintza, eskultura...; eskulangintza, oro har).
- **Jarduera ekonomikoetarako berariaz trebatzeko zentroa** (teknologia berriak, energia berriztagarriak...).
- **Ikasleentzat/rakasleentzat egoitzak:** arestiko proposamen batzuen osagarri, uste dugu ikasle eta irakasleentzako egoitzak egin daitezkeela.

3.5. Gizarte-ekipamenduak

Pasaiako biztanleriari begiratuta, helduen kopurua handia da, Gipuzkoako eta inguruko udalerrietako batez bestekoa baino altuagoa, eta, hala ere, **Pasaiak ez dauka pertsona helduen beharrak asetzeko behar bezalako ekipamendurik**. Gaur egun, **adineko pertsonentzako eguneko zentro baten premia dago**.

Pasaiak **ez dauka elkarteentzako lokalik**, eta premia hori handia da, gure herrian elkarte asko daudelako, jarduera handikoak.

Beraz, parte-hartzaileok proposatzen dugu:

- **Gizarte-zentro bat sortzea**, besteak beste, adinekoentzako **eguneko zentroa** eta **lokalak** edukiko dituen, Pasaian lan egiten duten elkarteek erabil ditzaten.

3.6. Kirol-ekipamenduak

Kirol-ekipamenduei dagokienez, La Herrerak hainbat motatako kirol-instalazioak izan ditzake, baina batez ere uretako kirolekin zerikusia daukatenak. Kirol-jarduera eragiteko eta turismoa erakartzeko balio beharko du.

Bereziki azpimarratu nahi ditugu urarekin zerikusia daukaten kirol-instalazioak (piraguismoa, arrauna...). Hala ere, beste ekipamendu batzuk ere aurreikusi ditugu:

- **Kirol-zentroa** (gimnasioa, arrauna, estropadak)
- **Piraguismorako instalazioak**
- **Kiroldegia**
- **Kirolletako kultur zirkuitua** (itsas museotik abiatuta).

Jarduera ekonomikoari lotutako kirol-ekipamenduei dagokienez, bereziki aipatu nahi dugu **kirol-portua**, baina garbi geratu da beharrezkoa dela aurretik definitzea eta adostea nolako ezaugarriak izango dituen eta zeri erantzun behar dion.

3.7. Hezkuntzarekin zerikusia daukaten jarduera ekonomikoak

Hezkuntzarekin zerikusia daukaten ekonomia-jarduerari dagokienez, hauek proposatzen ditugu:

- **Gipuzkoako Unibertsitate Campusa zabaltzea**, berriazko unibertsitate-zentroekin, eta unibertsitate-egoitzekin.
- **Berrikuntza-erakargunea sortzea**, bateratuko dituen jarduera ekonomikoa, hezkuntzakoa eta ikerkuntzakoa, eta helburu bakarrera bideratuta.

3.8. “Bata zuriko” jarduera ekonomikoak

Prozesuan parte hartu dugunon ustez, turismo eta kulturarekin zerikusia daukaten jarduera ekonomikoez gain, teknologiarekin edo zerbitzuekin zerikusia daukaten ez-ohiko beste jarduera batzuk ere bultzatuta daitezke. Gakoa da ekonomia berriaren erreferenteren bat sortzea, industria eta ikerketa lotzen dituen, herri-ekimenak bultzatuta, herri-lurren gainean eta portura sarbidea daukana, Pasaiarekin zerikusia daukana. Bereziki aipatu ditugu hauek:

- **Bioteknologiarekin** zerikusia daukaten jarduerak.
- **Komunikazioaren edo nabigazioarekin** zerikusia daukaten **teknologiak** edo **jarduerak**.
- **Ontzigitzarekin** zerikusia daukan **eskulangintza**.
- **Berrikuntza**, ikerkuntza, teknologia edo “bata zuriko” industria, telelaneko zentroak, informazioko teknologia berriak.

Azkenik, uste dugu turismoak lagun dezakeela Pasaiako merkataritza txikia biziberritzen eta indartzen.